



Partikula kutsatzaile finak, etsai ikusezina

Hirien arazo nagusietako bat esekiduran dautzan partikulak dira, osasunerako kalte garrantzitsuek eragin dezaketena. Etsaia ikusezina da, nahiz eta ez horrela bere efektuak. Partikula kutsatzaile finak bi talde handitan banatzen dira. PM10-ek 2,5 eta 10 mikrometro bitartean neurtzen dute (giza ilea baino 25 eta 100 aldiz bitartean meheagoak dira), PM2,5-ak 2,5 mikrometroatik beherakoak dira berriz (mikrometroa metroaren milioirena da). Kaltegarrienak txikienak dira, airean denbora gehiago daudenez gero, urrunago bidaiatzen dute eta organismoaren barneko parte gehiagori eragin diezaiekete.

Orain dela urte gutxiz geroztik badakigu gizakiarengan eraginik larriena duten kutsagarriak, beste zeinahiren aurretik, esekiduran dautzan partikulak (PM) eta ozonoa dira. Horien arriskugarritasuna tamainaren arabera aldatzen da: zenbat eta txikiagoak izan orduan eta errazkiago sar daitezke giza organismoan. PM10 izenekoak arnaste traktuaren goialdean sar daitezke eta PM2,5 izenekoak, berriz, biriketaraino irits daitezke: beraz, txiki hauek dira arriskutsuagoak. Badakigu partikula horien aurreko esposizio kronikoak gaitz kardiobaskularrak eta arnasketa alorrekoak ez ezik, biriketako minbizia ere nozitzeko arriskua areagotzen duela.

Osasunaren Mundu Erakundeak Airearen Kalitateaz emaniko arauak, airearen metro kubiko bakoitzeko PM2,5 partikuletatik gehienez ere 10 mikrogramo eta PM10etatik 20 mikrogramo onartzen ditu, batez beste, urtean. OME horrek zehaztu duen bezala, zifra horiek ez dira maila seguruak, kutsagarriek osasunean dituzten efektuak arintzea helburu, lortzeko eta onartzeko moduko helburuak baizik.

Fuente:

http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2010/08/23/195171.php#

<http://revista.consumer.es/web/eu/20070401/medioambiente/71470.php>